



111. Nerudaren amodiozko karta

Neruda haunditasun bat da. Beraz, sorpresa haundi bat eramaten dugu, haren amodiozko karta pila bat aurkitu ta argitara dela, jakiten duguncan. Urre mehatze bat aurkitu dela, iruditzen zaigu.

Neruda hil zenean, munduko poetarik haundienetakoa hil zen. Txilek izan duen poeta haundiena. Gaztelaniaz orain zegoen seguru asko haundiena. Eta gobernu faxista kriminal batek berak, azkeneko orduak ozpindu ondoren, poetaren adiskideak afusilatu ondoren, hiru eguneko dolua agindu zuen poetaren ohorez. Neruda hil zenean, Nerudaren edozer huskeria inportante iruditzen zitzaigun. Haunditasun bat da. Nerudaren zapatak ere beneratuko gaituen.

Tristagarri da, bat haundi denean, haunditasuna ta huskeriak berezten ahazten dugula.

111 Nerudaren amodiozko karta eskuratzen denean, batek zerbait espero du. Poeta haundiaren sekreto berri bat agian. Mila aurpegi zuenaren aurpegi berri bat.

Emakumeak Nerudaren poesian duen garrantzia, denok bait dakigu. Dena da emakume: Amerika, Txile, bizitza. Dena da enamoratu bat Neruda. Baina 111 Nerudaren amodiozko karta-ok ez digute deus berririk argitzen.

Hauxe bakarrik: ez genekien emakume izen bat. Biografiatan bazterrera gelditu zen bat. Edo, hobeto: bagenekien emakume —txapel grisez— baten



izena ta deitura. Poeta haundia izango zen mutikoak munduan beste hamar eta hogeit mila bezalakoxe karta hutsalak idazten zituela. Maitemindu guzien kartak. Beste dena, haurtzaroa Temucon, estudiante tunante urteak Santiagon, eta abar, poesiek hobeto agertu digute. Kartaok ez diote ezer crasten poesiar.

Maite zuela, mutikoak. Oso maite zuela. Triste ta pozez zebilela. Erreguka ta mehatxuka. Gozo-gozo ta zakar. Kontsul gazteak neska hori esposatu nahi zuela. Beno, eta zer. Albertina Rosa, izenik gabe txapel grisez poesian dabilena da. Egiazko Albertina Rosa hura bakarrik da berriz ere. Mari argi, Maria ilun. Beste hau, karta guzian hartzailea ta jasotzailea, alferrikako pertsona bat da Nerudaren obran. Zer zapata numero jazten zuen ere ez dakigu, eta zer? Orain Albertinaren izena badakigu, eta zer?

Cada dia Matilde:... guardas el sol, la sombra, las violetas / en tu pequeña sombra cuando duermes. Horra emakumea. Izena, nota bat soil melodian. Haunditasuna, ttipitasuna. Poeta, haundi. Eta Nerudaren korbata kolekzioa erretrato albuma, eta abar zakurraren haizea. Mutiko gaztearen kartak.

Bat hasarretu egiten da honelako profanazio batekin. Utz ditzatela ttipitasunak ttipi, mescedez. Haunditasunik ez profanatu. Profanazioa bait da kalendarario bat ateratzea maitasun haundiari. Iragandako urteak eta alferrikako izenak.

